Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2026ko uztailaren 30a, osteguna — 143 — Jueves, a 30 de julio de 2026

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

306/2026 Foru Agindua, uztailaren 27koa, Ekialde Hurbileko Krisiari Erantzuteko Plan Integrala onesten duen martxoaren 20ko 7/2026 Errege Lege Dekretuaren 46. artikuluan aurreikusitako hidrokarburoen gaineko zergaren itzulketa partzialerako eskubidea duten nekazaritzako ekoizleek kontsumitutako gasolioaren prezioa ordaintzeko aldi baterako laguntza bereziari buruzko egokitzapenak eta zehaztapenak ezartzen dituena, Estatuaren laguntzen araubidera egokitzeari dagokionez.

160/2026 Foru Aginduak, apirilaren 17koak, arautzen du zein prozedura aplikatuko diren nekazaritzako ekoizleek eta hidrokarburoen gaineko zergaren itzulketa partzialerako eskubidea duten ibilgailuen titularrek kontsumitutako gasolioaren prezioa ordaintzen laguntze aldera martxoaren 20ko 7/2026 Errege Lege Dekretuan ezarritako aldi baterako laguntza bereziak kudeatu eta ordaintzeko, eta helburu du, bereziki, behar den prozedura arautzea, nekazaritzako ekoizleek kontsumitzen duten gasolioaren prezioa ordaintze aldera ematen diren aldi baterako laguntza bereziak –Ekialde Hurbileko Krisiari Erantzuteko Plan Integrala onesten duen martxoaren 20ko 7/2026 Errege Lege Dekretuaren 46. artikuluan aurreikusiak–, kudeatu eta ordaintzeko, hura kudeatzeko eta itzultzeko eskumena Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokionean.

Foru agindu horren xedapen gehigarri bakarrean etete klausula bat ezarri zen, hala, foru aginduan aurreikusitako laguntzak guztiz eraginkorrak izan daitezen, ezinbesteko baldintza izango da bateragarritasun araubide jakin bati lotuta ematea, estatu laguntzei buruzko aldi baterako esparru bat ezarrita egotea, edo Europako Batzordearen erabaki batek edo tresna baliokide batek barne merkatuarekin bateragarriak direla adieraztea.

Testuinguru horretan, Europako Batzordeak «Ekialde Hurbileko krisiari erantzuteko Aldi Baterako Laguntza Esparru Batzordearen Komunikazioa (C (2026) 2947 amaierakoa)» onetsi du, ingelesezko siglen arabera, METSAF. Komunikazio horretan, Batzordeak Ekialde Hurbileko krisiari lotutako laguntza bereziak ebaluatzeko baldintzak eta irizpideak ezartzen dira, eta, dagokion erabakiaren bidez, laguntza horiek barne merkatuarekin bateragarriak direla deklaratu ahal izango du, hala xedatzen baitute Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak, (EBFT) 107. artikuluaren 3. apartatuko c) letran, eta Denbora Esparruak berak.

2026ko maiatzaren 8an, Espainiak nekazaritzako produktuen ekoizpen primarioan diharduten enpresentzako prezioei laguntzeko aldi baterako araubide bat jakinarazi zion Europako Batzordeari, erregaien prezioen igoeraren eragina arintzeko, dagokion bateragarritasun erabakia lortze aldera. Ondoren, 2026ko ekainaren 2an, Europako Batzordeak estatu laguntza hau baimentzeko erabakia hartu zuen: SA 122724 (2026/N) - Espainia, METSAF: nekazaritzako ekoizleek kontsumitzen duten gasolioaren prezioa ordaintze aldera ematen diren aldi baterako laguntza bereziak kudeatu eta ordaintzeko laguntza.

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

Orden Foral 306/2026, de 27 de julio, por la que se establecen adaptaciones y concreciones relativas a la ayuda extraordinaria y temporal para sufragar el precio del gasóleo consumido por los productores agrarios que tienen derecho a la devolución parcial del impuesto sobre hidrocarburos, prevista en el artículo 46 del Real Decreto-Ley 7/2026, de 20 de marzo, por el que se aprueba el Plan Integral de Respuesta a la Crisis en Oriente Medio, en materia de adecuación al régimen de ayudas de Estado.

La Orden Foral 160/2026, de 17 de abril, por la que se regulan los procedimientos para la gestión y pago de las ayudas extraordinarias y temporales para sufragar el precio del gasóleo consumido por los productores agrarios y por los titulares de vehículos que tienen derecho a la devolución parcial del impuesto sobre hidrocarburos, previstas en el Real Decreto-Ley 7/2026, de 20 de marzo, tiene por objeto regular, en particular, el procedimiento para la gestión y pago de la ayuda extraordinaria y temporal para sufragar el precio del gasóleo consumido por los productores agrarios, prevista en el artículo 46 del citado Real Decreto-Ley 7/2026, de 20 de marzo, por el que se aprueba el Plan Integral de Respuesta a la Crisis en Oriente Medio, cuando la competencia para su gestión y devolución corresponda a la Diputación Foral de Gipuzkoa.

La disposición adicional única de la referida orden foral incluía una cláusula de suspensión, de tal forma que la plena efectividad de la ayuda prevista en la misma está vinculada a su sujeción a un régimen de compatibilidad determinado; al establecimiento de un Marco temporal de ayudas estatales; o a una decisión de la Comisión Europea que autorice su compatibilidad con el mercado interior, o instrumento equivalente.

En este contexto, la Comisión Europea ha adoptado la «Comunicación sobre el Marco Temporal de Ayuda en respuesta a la crisis en Oriente Próximo (C(2026) 2947 final)», conocida por sus siglas en inglés como METSAF. En esta Comunicación se establecen las condiciones y los criterios conforme a los cuales la Comisión evaluará las ayudas extraordinarias vinculadas a la crisis en Oriente Medio y, mediante la correspondiente Decisión, podrá declarar su compatibilidad con el mercado interior, de conformidad con el artículo 107, apartado 3, letra c), del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea (TFUE) y con lo dispuesto en el propio Marco Temporal.

El 8 de mayo de 2026, España notificó a la Comisión Europea un régimen temporal de apoyo a los precios destinado a las empresas dedicadas a la producción primaria de productos agrícolas, con el fin de mitigar el impacto del aumento de los precios de los combustibles, a efectos de obtener la correspondiente decisión de compatibilidad. Posteriormente, el 2 de junio de 2026, la Comisión Europea adoptó la Decisión por la que se autoriza la ayuda estatal SA. 122724 (2026/N) - España, METSAF: Ayuda para cubrir el precio del gasóleo consumido por los productores agrícolas debido al aumento de precios provocado por la crisis de Oriente Medio.

EK\CV GAO-I-2026-05172

Baimenaren ondorio nagusia da laguntza Ekialde Hurbileko krisiari erantzuteko aldi baterako laguntza esparruan ezarritako baldintzen mende geratzen dela, eta, beraz, beharrezkoa dela foru agindu honen bidez barne eremuan ezartzea.

Hortaz, foru agindu hau eman behar da martxoaren 20ko 7/2026 Errege Lege Dekretuaren 46. artikuluan aurreikusitako laguntza behar bezala aplikatzeko behar diren egokitzapenak eta zehaztapenak onesteko –basogintza sektoreko nekazaritza gasoliorako laguntza izan ezik–, eta ziurtatzeko behar bezala txertatzen dela Ekialde Hurbileko krisiari erantzuteko Laguntzarako aldi baterako Esparru Batzordearen Jakinarazpenak ezarritako esparruan.

Horrenbestez, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengo. Estatu laguntzen araubidea.

1. 160/2026 Foru Aginduak, apirilaren 17koak, arautzen du zein prozedura aplikatuko diren nekazaritzako ekoizleek eta hidrokarburoen gaineko zergaren itzulketa partzialerako eskubidea duten ibilgailuen titularrek kontsumitutako gasolioaren prezioa ordaintzen laguntze aldera martxoaren 20ko 7/2026 Errege Lege Dekretuan ezarritako aldi baterako laguntza bereziak kudeatu eta ordaintzeko, eta helburu du, bereziki, behar den prozedura arautzea, nekazaritzako ekoizleek kontsumitzen duten gasolioaren prezioa ordaintze aldera ematen diren aldi baterako laguntza bereziak –Ekialde Hurbileko Krisiari Erantzuteko Plan Integrala onesten duen martxoaren 20ko 7/2026 Errege Lege Dekretuaren 46. artikuluan aurreikusiak–, kudeatu eta ordaintzeko, hura kudeatzeko eta itzultzeko eskumena Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokionean.

2. Ekialde Hurbileko Krisiari Erantzuteko Plan Integrala onesten duen martxoaren 20ko 7/2026 Errege Lege Dekretuaren 46. artikuluan jasotako laguntza bat dator «Ekialde Hurbileko krisiari erantzuteko Laguntzarako aldi baterako Esparru Batzordearen Jakinarazpenarekin (C(2026) 2947 azkena)» (METSAF).

3. Hala ere, basogintzara bideratutako martxoaren 20ko 7/2026 Errege Lege Dekretuaren 46. artikuluko laguntzak Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko 2023/2831 (EB) Erregelamenduaren barruan sartuko dira. Erregelamendu hori Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikuluak minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa da.

Horretarako, basogintza jardueretan gasolioa erabiltzen duen onuradunak berariaz jakinarazi beharko dio organo kudeatzaileari, hidrokarburoen gaineko zerga berezia itzultzeko eskatu aurretik, edo hamabost egun balioduneko epean, foru agindu hau indarrean jarri eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, baldin eta itzulketa eskatu badu.

4. METSAFen 61.d puntuarekin bat etorriz, diruz lagundu daitekeen aldia 2026ko martxoaren 1ean hasi eta martxoaren 20ko 7/2026 Errege Lege Dekretuaren 46. artikuluan zehaztutakoaren arabera amaituko da, eta ezin izango da inola ere 2026ko abenduaren 31tik aurrera luzatu.

Bigarren. Martxoaren 20ko 7/2026 Errege Lege Dekretuaren 46. artikuluan aurreikusitako laguntza zer egoeratan ez den jasoko.

1. Ezin izango zaie laguntzarik eman laguntza bat legez kanpokoa eta barne merkatuarekin bateraezina dela adierazten duen Europako Batzordearen aurreko erabaki baten ondorioz berreskuratzeko agindu baten xede diren enpresei. Egoera horietako batean dagoen onuradunak dagokion instrukzio organoari jakinarazi beharko dio.

2. 2026ko otsailaren 28an krisian zeuden enpresa handiek eta ertainek ere ezin izango dituzte laguntza horiek jaso.

Mikroenpresen eta enpresa txikien kasuan, laguntzen onuradun izan ahalko dira, nahiz eta 2026ko otsailaren 28an krisian

La principal consecuencia de la autorización es que la ayuda queda sujeta a los requisitos establecidos en el Marco Temporal de Ayuda en respuesta a la crisis en Oriente Próximo, por lo que resulta necesaria su implementación en el ámbito interno mediante la presente orden foral.

Procede, por lo tanto, dictar la presente orden foral a fin de aprobar las adaptaciones y concreciones necesarias para la adecuada aplicación de la ayuda prevista en el artículo 46 del Real Decreto-Ley 7/2026, de 20 de marzo –con exclusión de la ayuda al gasóleo agrícola en el sector forestal–, asegurando su correcta inserción en el marco establecido por la Comunicación de la Comisión Marco temporal de ayuda en respuesta a la crisis en Oriente Próximo.

En su virtud,

DISPONGO

Primero. Régimen de ayudas de Estado.

1. La Orden Foral 160/2026, de 17 de abril, por la que se regulan los procedimientos para la gestión y pago de las ayudas extraordinarias y temporales para sufragar el precio del gasóleo consumido por los productores agrarios y por los titulares de vehículos que tienen derecho a la devolución parcial del impuesto sobre hidrocarburos, previstas en el Real Decreto-Ley 7/2026, de 20 de marzo, tiene por objeto regular, en particular, el procedimiento para la gestión y pago de la ayuda extraordinaria y temporal para sufragar el precio del gasóleo consumido por los productores agrarios, prevista en el artículo 46 del citado Real Decreto-Ley 7/2026, de 20 de marzo, por el que se aprueba el Plan Integral de Respuesta a la Crisis en Oriente Medio, cuando la competencia para su gestión y devolución corresponda a la Diputación Foral de Gipuzkoa.

2. La ayuda contemplada en el artículo 46 del Real Decreto-Ley 7/2026, de 20 de marzo, por el que se aprueba el Plan Integral de Respuesta a la Crisis en Oriente Medio, se ajusta a la «Comunicación sobre el Marco temporal de ayuda en respuesta a la crisis en Oriente Próximo (C(2026) 2947 final)» (METSAF).

3. Sin embargo, las ayudas de artículo 46 del Real Decreto-Ley 7/2026, de 20 de marzo, destinadas a la silvicultura se enmarcarán en el Reglamento (UE) 2023/2831 de la Comisión, de 13 de diciembre de 2023, relativo a la aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea a las ayudas de minimis.

A tal efecto, el beneficiario que utilice gasóleo en actividades silvícolas deberá comunicarlo expresamente al órgano gestor antes de solicitar la devolución del impuesto especial sobre hidrocarburos, o en un plazo de quince días hábiles computados desde el día siguiente a la eficacia de la presente orden foral si ya hubiese solicitado la devolución.

4. De conformidad con el punto 61.d del METSAF, el período subvencionable se inicia el 1 de marzo de 2026 y concluye conforme se determina en el artículo 46 del Real Decreto-Ley 7/2026, de 20 de marzo, sin que, en ningún caso, pueda extenderse más allá del 31 de diciembre de 2026.

Segundo. Situaciones en las que no procederá la percepción de la ayuda prevista en el artículo 46 del Real Decreto-Ley 7/2026, de 20 de marzo.

1. No podrán concederse ayudas a empresas que sean objeto de una orden de recuperación pendiente a raíz de una decisión anterior de la Comisión Europea en la que se declare que una ayuda es ilegal e incompatible con el mercado interior. El beneficiario que se encuentre en alguna de estas situaciones deberá comunicarlo al órgano instructor correspondiente.

2. Tampoco podrán percibir estas ayudas las grandes y medianas empresas que estuvieran en crisis a 28 de febrero de 2026.

En el caso de micro y pequeñas empresas, podrán ser beneficiarias de las ayudas, aunque estuvieran en crisis a 28 de fe-

EK\CV GAO-I-2026-05172

egon, baldin eta data horretan ez badaude egintza judizial bidez deklaratutako konkurtso-prozedura batean sartuta, maiatzaren 5eko 1/2020 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Konkurtso Legearen testu bateginaren arabera, eta ez badute salbamendu edo berregituratze-laguntzarik jaso, salbu eta, azken bi kasu horietan, METSAFen ezarritakoa betetzen badute, hau da:

a) Salbamendu-laguntza jaso dute, baina laguntza emateko unean mailegua itzulia badute edo bermeari amaiera eman diote; edo

b) Berregituratze-laguntza jaso dute, baina laguntza emateko unean ez daude berregituratze-plan bati lotuta.

3. Horretarako, eta hargatik eragotzi gabe instrukzio organoak dagozkion erregistro publikoak kontsultatu ahal izatea, 1. eta 2. apartatuetan aipatutako egoeraren batean dagoen interesdunak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko du, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69. artikuluan aurreikusitako ondorioekin, egoera horietako batean dagoela adierazten duena.

Onuraduna egoera horietako batean dagoenean erantzukizunpeko adierazpen hori aurkezten ez badu, laguntza ukatu egingo zaio, edo, jada ordainduta badago, bidegabe jasotako zenbatekoak itzuli beharko ditu, aplikatu beharreko araudiaren arabera eska daitezkeen interesekin batera, betiere Gipuzkoako Foru Aldundiak dagokion berreskuratze-prozedura izapidetu ondoren.

Erantzukizunpeko adierazpena aurreikusitako epean aurkezten ez bada, administrazio eskudunak erabaki ahal izango du interesdunak egoera horietan ez dagoela adierazten duela, laguntzak izapidetzen eta ordaintzen hasi ahal izateko.

Onuraduna egoera horietako batean dagoenean erantzukizunpeko adierazpen horiek aurkezteak laguntza ukatzea ekarriko du, edo, laguntza dagoeneko ordaindu bada, bidegabe jasotako zenbatekoak itzultzea, bai eta aplikatu beharreko araudiaren arabera eska daitezkeen interesak itzultzea ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak dagokion berreskuratze-prozedura izapidetu ondoren.

4. Enpresa onuradunaren tamaina zehazteko, honako hauek hartuko dira kontuan: Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko Gomendioa, mikroenpresen eta enpresa txiki eta ertainen definizioari buruzkoa, eta Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduaren I. eranskina, zenbait laguntza kategoria barne-merkatuarekin bateragarritzat jotzen dituena, Tratatuaren 107. eta 108. artikuluak aplikatuz.

Hirugarren. Erantzukizunpeko adierazpena aurkezteko epea eta modua.

1. Aurreko puntuko 1. eta 2. apartatuetan adierazitako egoeraren batean dauden interesdunek hamabost egun balioduneko epea izango dute erantzukizunpeko adierazpena aurkezteko, foru agindu hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2. Erantzukizunpeko adierazpena bitarteko elektronikoz egingo da, Internet bidez, hala xedatzen baitu ekainaren 28ko 320/2017 Foru Aginduak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zergen foru Administrazioarekiko harremanetan bitarteko elektronikoak erabiltzeko obligazioa arautzen duenak, «Zergabidea» plataforman horretarako gaitutako formularioaren erabilita.

«Zergabidea» plataforma https://zergabidea.gipuzkoa.eus atarian dago eskuragarri. Bertan sartzeko, beste bi bide hauek ere erabili daitezke: Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa (https://egoitza.gipuzkoa.eus) eta Ogasun eta Finantza Departamentuaren webgune ofiziala (https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ogasuna).

brero de 2026, siempre que en dicha fecha no se encuentren inmersas en un procedimiento concursal declarado mediante acto judicial conforme al texto refundido de la Ley Concursal, aprobado por Real Decreto Legislativo 1/2020, de 5 de mayo, y que no hayan recibido ayuda de salvamento ni ayuda de reestructuración salvo que, en estos dos últimos supuestos, cumplan lo establecido en el METSAF, es decir que:

a) Habiendo recibido ayuda de salvamento, hayan reembolsado el préstamo o puesto fin a la garantía en el momento de la concesión de la ayuda; o

b) Habiendo recibido ayuda de reestructuración, no estén sujetas a un plan de reestructuración en el momento de la concesión de la ayuda.

3. A tal efecto, y sin perjuicio de que el órgano instructor pueda consultar los registros públicos pertinentes, el interesado que se encuentre en alguna de las situaciones señaladas en los apartados 1 y 2 presentará declaración responsable, con los efectos previstos en el artículo 69 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, en que indique que se encuentra en alguna de esas situaciones.

La ausencia de presentación de esta declaración responsable cuando el beneficiario se encuentre en algunas de esas situaciones supondrá la denegación de la ayuda o, si ésta ya se hubiera abonado, la devolución de las cantidades indebidamente percibidas, junto con los intereses que resulten exigibles conforme a la normativa aplicable, previa tramitación del correspondiente procedimiento de recuperación por la Diputación Foral de Gipuzkoa.

En caso de falta de presentación de la declaración responsable en el plazo previsto, la Administración competente podrá considerar que el interesado declara no encontrarse en tales situaciones al objeto de poder empezar a tramitar y abonar las ayudas.

La presentación de estas declaraciones responsables cuando el beneficiario se encuentre en algunas de esas situaciones supondrá la denegación de la ayuda o, si ésta ya se hubiera abonado, la devolución de las cantidades indebidamente percibidas, junto con los intereses que resulten exigibles conforme a la normativa aplicable, previa tramitación del correspondiente procedimiento de recuperación por la Diputación Foral de Gipuzkoa.

4. Para la determinación del tamaño de la empresa beneficiaria se tendrán en cuenta los términos de la Recomendación de la Comisión de 6 de mayo de 2003, sobre la definición de microempresas, pequeñas y medianas empresas y el anexo I del Reglamento (UE) núm. 651/2014 de la Comisión de 17 de junio de 2014 por el que se declaran determinadas categorías de ayudas compatibles con el mercado interior en aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado.

Tercero. Plazo y forma de presentación de la declaración responsable.

1. La presentación de la declaración responsable por parte de los interesados que se encuentren en alguna de las situaciones señaladas en los apartados 1 y 2 del dispositivo anterior se realizará en un plazo de quince días hábiles computados desde el día siguiente a la publicación de la presente orden foral.

2. La declaración responsable se efectuará por vía electrónica a través de internet, con arreglo a lo previsto en la Orden Foral 320/2017, de 28 de junio, por la que se regula la obligación de relacionarse con la Administración tributaria foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa por medios electrónicos, mediante el formulario habilitado al efecto en la plataforma «Zergabidea».

La plataforma «Zergabidea» se encuentra disponible en el portal https://zergabidea.gipuzkoa.eus. También se puede acceder a la misma a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa, https://egoitza.gipuzkoa.eus, y de la página web oficial del Departamento de Hacienda y Finanzas, https://www.gipuzkoa.eus/es/web/ogasuna.

EK\CV GAO-I-2026-05172

Laugarren. Martxoaren 20ko 7/2026 Errege Lege Dekretuaren 46. artikuluan aurreikusitako laguntzaren bateragarritasuna.

1. METSAFen aplikazio eremuan sartzen diren laguntzak metatu ahal izango dira METSAFen 2.1 apartatuaren edo METSAFen beste apartatu batzuen arabera emandako beste laguntza batzuekin, METSAFen dagozkien apartatuetan ezarritako baldintzekin bat etorriz. Gainera, minimis erregelamenduek araututako laguntzekin edo kategorien araberako salbuespen erregelamenduek araututako laguntzekin metatu ahal izango dira, betiere erregelamendu horien xedapenak eta metatze arauak errespetatzen badira.

2. Metatze arauak betetzen direla egiaztatzeko, laguntza eman eta ordaindu aurretik, organo kudeatzaileak onuradun izan daitezkeenak jasotako laguntzak egiaztatuko ditu Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean.

Bosgarren. Jarraipena eta jakinarazpena.

1. Laguntzei buruzko informazioa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratuko da, martxoaren 8ko 130/2019 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera, laguntza ematen denetik sei hilabeteko epean, eta informazio hori erabiliko du Europako Batzordeak METSAFen 76. puntuan aurreikusitako laguntzei buruzko urteko txostenak egiteko.

2. Entitate kudeatzaileak foru agindu honen bidez emandako laguntzen erregistro xehatuak gordeko ditu hamar urtez, laguntza ematen denetik zenbatzen hasita, METSAFeko 77. puntua betez, eta Europako Batzordeari emango zaizkio, hark eskatzen duenean.

Seigarren. Datu pertsonalen tratamendua.

Foru agindu honen aplikazioan laguntzak jasotzeko interesdunek aurkezten dituzten datu pertsonalen tratamenduak 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta Datuak Babesteko Euskal Agintaritzari buruzko abenduaren 21eko 16/2023 Legean xedatutakoari zorrotz lotuta egingo dira.

Zazpigarren. Eraginkortasuna.

Foru agindu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Donostia, 2026ko uztailaren 27a.—Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua. (5172)

Cuarto. Compatibilidad de la ayuda prevista en el artículo 46 del Real Decreto-Ley 7/2026, de 20 de marzo.

1. Las ayudas que entren en el ámbito de aplicación de METSAF podrán acumularse con otras ayudas concedidas en virtud del apartado 2.1 de METSAF u otros apartados de METSAF, de conformidad con los requisitos establecidos en los apartados correspondientes de METSAF. Además, podrán acumularse con ayudas, reguladas por los reglamentos de minimis o con ayudas reguladas por los reglamentos de exención por categorías, siempre que se respeten las disposiciones y las normas de acumulación de dichos reglamentos.

2. Con el fin de comprobar el respeto de las normas de acumulación, con carácter previo a la concesión y pago de la ayuda, el órgano gestor comprobará en la Base Nacional de Datos de Subvenciones las ayudas percibidas por los posibles beneficiarios.

Quinto. Seguimiento y notificación.

1. La información de las ayudas se publicará en la Base Nacional de Datos de Subvenciones, de conformidad con lo establecido en el Real Decreto 130/2019, de 8 de marzo, en un plazo de seis meses a partir del momento de la concesión, que servirá de base para emitir los informes anuales sobre las ayudas a la Comisión Europea previstos en el punto 76 de METSAF.

2. La entidad gestora conservará registros detallados de las ayudas concedidas en virtud de la presente orden foral durante un periodo de diez años a contar desde la concesión de la ayuda, en cumplimiento del punto 77 del METSAF, y se entregarán a la Comisión Europea cuando ésta lo solicite.

Sexto. Tratamiento de datos personales.

Los tratamientos de datos de carácter personal aportados por los interesados para la percepción de ayudas en la aplicación de la presente orden foral se realizarán con estricta sujeción a lo dispuesto en el Reglamento (UE) 2016/679, de 27 de abril de 2016, en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, y en la Ley 16/2023, de 21 de diciembre, de la Autoridad Vasca de Protección de Datos.

Séptimo. Eficacia.

La presente orden foral surtirá efectos a partir del mismo día de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 27 de julio de 2026.—La diputada foral del Departamento de Hacienda y Finanzas. (5172)

EK\CV GAO-I-2026-05172